

ERANSKINA

DIRU-LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA

LEHENDAKARITZA 2016

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 8. artikulua ezarritakoaren arabera, *Herri Administrazioetako organoek edo diru-laguntzen ezarpena proposatzen duen edozein erakundek, aldez aurretik, diru-laguntzen plan estrategiko batean zehaztu beharko dituzte berau aplikatzean lortu nahi diren helburuak eta ondorioak, baita horiek lortzeko epea, aurreikusten diren kostuak eta haiek finantzatzeko iturriak ere; betiere, aurrekontu-egonkortasunaren helburuak beteko direla bermatuta.*

Horrez gain, zehazten du lortu nahi diren helburuek merkatuari eragiten diotenean argi eta garbi identifikatutako akatsak zuzentzera bideratu behar dela, eta bere ondorioek ahalik eta distorsio txikiena eragin behar dutela.

Lege horrek aipatzen duen diru-laguntzen kudeaketa egiteko hurrengo printzipioak jarraituko dira:

- a) Publizitatea, gardentasuna, aldiberekotasuna, objektibotasuna, berdintasuna eta ez-baztertea.*
- b) Eman duen administrazioak finkatutako helburuak lortzean izandako efikazia.*
- c) Baliabide publikoak esleitzeko eta erabiltzeko eraginkortasuna.*

Horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioen alorrean, Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren 01/2015 Zirkularrak, Diru-laguntzen Plan Estrategikoen elaborazioari buruzkoak, hainbat argibide eman ditu horiek ezinbestean elaboratzeari begira.

Lehendakaritzak gauzatu beharreko jarduerari dagozkion sailak esleitzen ditu Lehendakariaren abenduaren 15eko 20/2012 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko Sailak sortu, ezabatu eta aldatzen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituenak.

Apirilaren 9ko 187/2013 Dekretuari jarraikiz, Lehendakaritzaren egitura organiko eta funtzionala hiru Idazkaritzatan ezarri zen: Lehendakaritzako Idazkaritza Nagusia, Kanpo Ekintzarako Idazkaritza Nagusia eta Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia. Lehendakaritzako Idazkaritza Nagusiari dagokio Lehendakaritzako zerbitzu komunak koordinazio orokorra, zuzendaritza eta kudeaketa.

Bestalde, genero-arloko aukera-berdintasunaren jarduketa-saila Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundea organismo autonomoaren esku dago; garapenerako lankidetzaren saila Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia zuzenbide publikoko

erakundeari dagokio; eta giza eskubideak bermatzeko, sustatzeko eta garatzeko, memoria sustatzeko eta bizikidetzaren demokratikoan aurrerapenak eta garapena lortzeko saila Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua erakunde autonomoaren ardurapean dago.

Aipatutako Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren 01/2015 Zirkularrari jarraikiz, Lehendakariaren Diru Laguntzen Plan Estrategikoa onartu beharra dago, bai eta hari atxikitako Organismo bakoitzaren Diru Laguntzen Plan Estrategikoak ere.

Hori dela eta, jarraian **Lehendakariaren 2016ko Diru Laguntzen Plan Estrategikoa** landuko da, eta lehenik eta behin adierazi behar da plana programatikoa da, bere generoko beste planen moduan, eta beraz, edukiak ez duela ez eskubiderik ez betebeharririk sortzen. Planaren eraginkortasuna abiarazten diren diru-laguntza ildoen baldintzapekoa izango da eta hori, beste alderdi batzuen artean, urte bakoitzean dagoen aurrekontuaren arabera izango da.

Planaren egiturari eta antolakuntzari dagokionez, nabarmendu beharra dago Legegintzaldiko Plan Estrategikoak egotearen garrantzia berezia. Gobernu Kontseiluak X. Legegintzaldi honetan plan horietako batzuk onartu ditu dagoeneko, Lehendakariari esleitutako zenbait lurralde-arlotan.

Illo horretan, hauek dira Lehendakariaren jarduketa-alorrei dagozkien Lurralde Planak:

- ❖ 2014-2016-RAKO KANPO-EKINTZAKO PLANA, 2020-KO NAZIOARTEKOTZE ESPARRUKO ESTRATEGIAREN zati gisa: BASQUE COUNTRY ESTRATEGIA (2014ko apirilaren 8ko Gobernu Kontseiluaren akordioak onartua).
- ❖ BAKE ETA BIZIKIDETZA PLANA 2013-2016 (2013ko azaroaren 26ko Gobernu Kontseiluaren akordioak onartua).
- ❖ 2020-RAKO ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZA PLANA - ZTBP (2014ko abenduaren 16ko Gobernu Kontseiluaren akordioak onartua).

Bestalde, hauek dira Lehendakariari atxikitako organismoek garatutako jarduketa-alorrei dagozkien Lurralde Planak:

- ❖ **EMAKUNDE:** EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO VI. PLANA, 2014-2017 (2013ko abenduaren 30eko Gobernu Kontseiluaren akordioak onartua).
- ❖ **GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA:** GARAPENERAKO LANKIDETZAREN III. GIDA PLANA, 2014-2017. (2015eko otsailaren 10eko Gobernu Kontseiluaren akordioak onartua).

Eskuratu nahi diren interes publikoak aztertu ondoren, eta baterako ikuspegia eskaintze, eraginkortasun-mailak areagotzea eragite eta publizitatea eta gardentasuna errazte aldera, erabaki da **Lehendakariaren 2016ko Diru Laguntzen Plan Estrategiko** honek Aurrekontuen Legean 2016rako egindako aurreikuspenei gehitu diezaiela Lurralde Plan horietan dagoeneko jasotako diru-laguntzen plangintza.

Horretarako, aipatutako araugintza-esparru juridikoari jarraikiz, Lurralde Plan horiekin koordinatu dira Aurrekontuen Legean 2016rako laguntzen eta diru-laguntzen aurreikuspenak (kontabilitate publikoko programaren 4. eta 7. Kapitulua). Hala, arreta eman zaie deialdi publikoen bidez esleitu beharko diren diru-laguntzei, eta alde batera utzi dira, ondorioz, Aurrekontu Orokorren Legean izendatutako horiek, dagoeneko publikoak izateagatik eta Eusko Legebiltzarrak horiek xede jakin baterako espresuki onartu izanagatik.

Prozesu horri dagokionez, aipatu beharra dago 2016rako Aurrekontuen Legean urte horretarako aurreikusitako laguntzek eta diru-laguntzek ondoko ezaugarriak dituztela:

- Sailaren Idazkaritza Orokor guztietan daude laguntzen eta diru-laguntzen aurreikuspenak.
- Norgehiagoka-prozedura bidez esleitu beharreko hornidura moduan agertzen dira ere sariak eta bekak.
- Aurrekontuen Legean aurreikusitako laguntza-ildo gehienak, aldi berean, bat datoz Gobernu Kontseiluak onartutako eta Lehendakartzako organoek kudeatutako Planetan jasotako Helburuekin eta Ekimenekin. Horri esker ikus daiteke koherentzia dagoela Lurralde Planetan nabarmendutako Helburuen eta gainerako faktoreen eta dagozkien Aurrekontu Orokorren formulazioaren artean.
- Jarraibide orokor hori gorabehera, honako alderdi hauek zehaztu behar dira:
 - Eusko Jaurlaritzak onartutako Lurralde Planetan jaso gabe geratuko lirateke Lehendakartzako Idazkaritza Nagusiaren esparruari dagozkion partida hauek:
 - Euskal Gizartearen Egoera saria (ekainaren 11ko 137/1996 Dekretua). (Azterlan Kabinetearen Zuzendaritza).
 - Profesionalak Gobernu Irekiaren (Open Government) arloan espezializatzen eta trebatzen zuzendutako beka-programa. (Uztailaren 26ko 173/2011 Dekretua). (Gobernu Irekiko Zuzendaritza).
 - 2020Rako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planarekiko erreferentziak garrantzia oso mugatua du Lehendakartzaren jardueran, eta neutroa Diru Laguntzen Plan Estrategiko honi dagokionez. Hain zuzen, ZTBP horri lotuta, Lehendakartzako Aurrekontuan jaso da Berrikuntza Funtzari dagokion aurreikuspena, eta hura, berezko programarekin, bestelako Gobernu Sailen bitartez arautzen da diru-laguntzen deialdiei dagokienez, gehienbat Garapen Ekonomiko eta Lehiakortasun Sailaren eta Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren bitartez, eta horiei kopuru egokiak transferitzen zaizkie antolatze dituzten deialdiak kudeatzeko.

Dagoeneko onartutako Lurralde Planen eta laguntzen eta diru-laguntzen aurrekontuen aurreikuspenen arteko kontrasteak argi uzten du bat datozela Helburuekin, Ekintza-ildoekin eta are Adierazleekin ere, Diru Laguntzen Plan Estrategiko honetan banakatuta geratzen diren moduan.

Dagoeneko onartutako Lurralde Planetan tokirik ez duten diru-laguntza ildoei dagokienez, esaterako Lehendakartzako Idazkaritzako Nagusiaren alorrari dagozkion

eta deialdi publikoen bidez arautzen diren horien kasuan, hemen jorratu da Diru Laguntzen Plan Estrategiko batek eskatzen dituen alderdien zehaztapena.

Lurralde Plan Estrategikoei lotzen zaizkien ildoei dagokienez, Plan horiek egitura eta sistematika ezberdinei eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren 01/2015 Zirkularraren beraren aurreko une bati erantzuten dieten guztietan, egindako deialdien segurtasun juridiko osoa bermatze aldera, **Lehendakaritzaren 2016ko Diru Laguntzen Plan Estrategiko** honi gehitzen zaizkio, lege-aurreikuspenarekin bat datorren sistematika bati jarraikiz.

Azken buruan, diru-laguntza neurriek indarrean diren Lurralde Planen Helburuekin, Ekintzekin eta Adierazleekin duten lotura formala nabarmena egiten da, eta, Plan horietako batean ere jaso ez diren horien kasuan, Plan honen esparruko deialdian gehitzeko lege-errekerimenduak adierazten dira.

Horregatik guztiagatik, **Lehendakaritzaren 2016ko Diru Laguntzen Plan Estrategikoa** sustatze-jardueraren plangintza-tresna moduan konfiguratu da, Lehendakaritzari dagozkion diru-laguntzen bidez, eta ondoko ataletan egituratuta dago:

1. Lehendakaritzako Idazkaritza Nagusiari dagozkion diru-laguntza neurriak (lurralde-planei lotu gabeak)
2. Kanpo Ekintzarako Idazkaritza Nagusiari dagozkion diru-laguntza neurriak. 2014-2016 Kanpo Ekintzako Planaren inguruan garatuak (2020ko Nazioartekotze Esparruko Estrategian integratua: Basque Country estrategia)
3. Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiari dagozkion diru-laguntza neurriak. 2013-2016 Bake eta Bizikidetzaren Planaren inguruan garatuak.

LEHENDAKARITZAKO IDAZKARITZA NAGUSIA

1. LEHENDAKARITZAKO IDAZKARITZA NAGUSIARI DAGOZKION DIRU-LAGUNTZA NEURRIAK (lurralde-planei lotu gabeak)

DIRU-LAGUNTZA ILDOA	HELBURU ESTRATEGIKOA	PROGRAMA/AURREKONTU-PROIEKTUA/FINANTZAZIOA	ADIERAZLEA
Euskal Gizartearen Egoera saria 2016	Euskal gizartearen errealitate garaikideari buruzko ulermena hobetzen lagunduko duten ikerketak eta azterlanak egitea bultzatzea eta sustatzea (137/1996 D)	PROGRAMA: 2016-KO AURREK.: 9.300 € (01 1121 11 45301 001) FINANTZAZIOA: Eusko Jaurlaritza, % 100	
Kazetaritza Digitalaren eta Gobernu Irekiaren inguruko prestakuntza emateko 2016-2017ko Beka Programa	Herritarren partaidetza, gardentasuna eta herritarrekiko sareko lankidetzak bultzatzea, interneten komunikatzeko multimedia eta ikus-entzunezko tresna berriak sustatzearen bidez	PROGRAMA: INTERNETI ETA SARE SOZIALEI BURUZKO ANALISIA: Gobernu Irekiaren eta Kazetaritza Digitalaren inguruko prestakuntza 2016-KO AURREK.: 15.000, 2017ko konpromiso-kreditua, 20.000 (01 1121 15 45301 001) FINANTZAZIOA: Eusko Jaurlaritza, % 100	2016ko aurrekontuaren tamaina: 4 beka

KANPO-HARREMANETARAKO IDAZKARI NAGUSIA

2.- KANPO-EKINTZARAKO IDAZKARITZA NAGUSIARI DAGOZKION DIRU-LAGUNTZA NEURRIAK (2014-2016rako KANPO EKINTZAKO PLANArekin lotuta; 2020ko Nazioartekotze Esparruko Estrategian integratua: BASQUE COUNTRY ESTRATEGIA)

1.- 2016-KO AURREK. PROIEKTUA:

KANPOKO EKINTZARAKO LANBIDE ESPEZIALIZAZIOKO BEKAK:

AURREK. PROIEKTUA: 01 1311 21 45301 002; **2016: 116.000, Konpromiso-kreditua: 2017: 50.000.**

KANPOKO EUSKAL KOMUNITATEARI ZUZENDUTAKO ESPEZIALIZAZIO-BEKAK:

AURREK. PROIEKTUA: 01 1311 23 45301 001; **2016: 72.000, Konpromiso-kreditua: 2017: 8.000.**

Helburua: 05. KANPO EKINTZAREN ERAGINKORTASUNA ETA KALITATEA

Ekintza: 3. Euskadiko kanpo ekintza profesionalizatzea. 4. Diru-laguntzetarako deialdia

Adierazlea: Gehitutako bekadunen kopurua 8 (2016 AURREKONTU EKITALDIA)

2014-2016 KANPO-EKINTZA PLANA

O6. HELBURU ESTRATEGIKOA: Euskadiren kanpo-ekintzaren eraginkortasuna eta kalitatea areagotzea

EKINTZA-ILDOA: 6.3.El. Euskadiren kanpo-ekintza profesionalizatzea: 6.3.El-REN ARDURADUNA Kanpo Ekintzarako Idazkaritza Nagusia

Jarduketa: 6.3.4.J. Kanpo-ekintzako diru-laguntzetarako deialdia

PLAN adierazlea: 6.3.4.J. Kanpo-ekintzako diru-laguntzetarako deialdia

- Gehitutako bekadunen kopurua: 25 bide 2016 arte (2014-2016 ALDI PLANIFIKATUA)

2.- 2016-KO AURREK. PROIEKTUA:
MUTURREKO BEHARRA DUEN KANPOKO EUSKAL KOMUNITATEARI ZUZENDUTAKO DIRU-LAGUNTZAK: AURREK. PROIEKTUA: 01 1311 23 45301 002; 2016: 202.000.
Helburua: 04. EUSKADIREN ETA KANPOKO EUSKAL KOMUNITATEAREN ARTEKO HARREMANAK BULTZATU, BABESTU ETA AREAGOTZEA Ekintza: 4. Kanpoko euskal komunitateko pertsonak artatzea. 1. Muturreko beharra duten familia-unitateei diru-laguntza ematea Adierazlea: Artatutako familia-unitate kopurua: 80 (AURREKONTU EKITALDIA))
2014-2016 KANPO EKINTZA PLANA
04. HELBURU ESTRATEGIKOA: Euskadiren eta kanpoko euskal komunitatearen arteko harremanak bultzatu, babestu eta areagotzea
EKINTZA-ILDOA: 4.4.El. Kanpoko euskal komunitateko pertsonak artatzea. 4.4.El-REN ARDURADUNA: Kanpoko Euskal Komunitatearen Zuzendaritza Jarduketa: 4.4.1.J. Muturreko beharra duten familia-unitateei diru-laguntza ematea PLAN adierazlea: 4.4.1.J. Muturreko beharra duten familia-unitateei diru-laguntza ematea: - Artatutako familia-unitate kopurua: 200 bide 2016 arte (2014-2016 ALDI PLANIFIKATUA)

3.- 2016-KO AURREK. PROIEKTUA:
EUSKAL ETXEEI ETA EUSKAL ETXEEN FEDERAZIOARI ZUZENDUTAKO DIRU LAGUNTZAK (Jardueretarako gastua, 4. kapitulua): AURREK. PROIEKTUA: 01 1311 23 45499 003; 2016: 117.346. Konpromiso-kreditua: 2017: 664.961.
Helburua: 04. EUSKADIREN ETA KANPOKO EUSKAL KOMUNITATEAREN ARTEKO HARREMANAK BULTZATU, BABESTU ETA AREAGOTZEA Ekintza: 3. Kanpoko euskal komunitatea indartzen laguntzea Euskal Etxeen sarearen bidez Adierazleak: - Euskal Etxeen rola indartzea euskal errealitatea zabaltzeko mekanismo gisa. Euskal Etxeek antolatutako jarduera kopurua: 3.500 (AURREKONTU EKITALDIA) - Euskal Etxeen eta haien herrialdeetan kokatutako bestelako diasporen arteko lankidetzaren sustatzea. Elkarrekin gauzatutako jarduketa kopurua: 70 (AURREKONTU EKITALDIA) - Euskal Etxeak dituzten gizarteetan Euskal Etxeen jarduerak indartzea. Bestelako eragileekin gauzatutako jarduketaren kopurua: 300 (AURREKONTU EKITALDIA)
2014-2016 KANPO EKINTZA PLANA
04. HELBURU ESTRATEGIKOA: Euskadiren eta kanpoko euskal komunitatearen arteko harremanak bultzatu, babestu eta areagotzea
EKINTZA-ILDOA: 4.3.El. Kanpoko euskal komunitatea indartzen laguntzea Euskal Etxeen sarearen bidez. 4.3.El-REN ARDURADUNA: Kanpoko Euskal Komunitatearen Zuzendaritza Jarduketa: Jarduketa: 4.3.3.J. Euskal Etxeak dituzten gizarteetan Euskal Etxeen jarduerak indartzea PLAN adierazlea: 4.3.1.J. Euskal Etxeen rola indartzea euskal errealitatea zabaltzeko mekanismo gisa: - Euskal Etxeek antolatutako jarduera kopurua: 6.000 bide 2016 arte (2014-2016 ALDI PLANIFIKATUA) 4.3.3.J. Euskal Etxeak dituzten gizarteetan Euskal Etxeen jarduerak indartzea: - Bestelako eragileekin gauzatutako jarduketaren kopurua: 500 bide 2016 arte (2014-2016 ALDI PLANIFIKATUA)

4.- 2016-KO AURREK. PROIEKTUA:
EUSKAL ETXEEI ETA EUSKAL ETXEEN FEDERAZIOARI ZUZENDUTAKO DIRU LAGUNTZAK (Inbertsioetarako gastua. 7. kapitulua):
AURREK. PROIEKTUA: 01 1311 23 75491 002; 2016: 12.000. Konpromiso-kreditua: 2017: 68.000
Helburua: 04. Euskadiren eta kanpoko euskal komunitatearen arteko harremanak bultzatu, babestu eta areagotzea Ekintza: 3. Kanpoko euskal komunitatea indartzen laguntzea Euskal Etxeen sarearen bidez. 4. Euskal Etxeak informazioaren eta komunikazioaren teknologietan txertatzea sustatzea Adierazlea: 100 Erabilitako komunikazio-bideen kopurua (AURREKONTU EKITALDIA)
2014-2016 KANPO EKINTZA PLANA
04. HELBURU ESTRATEGIKOA: Euskadiren eta kanpoko euskal komunitatearen arteko harremanak bultzatu, babestu eta areagotzea
EKINTZA ILDOA: 4.3.El. Kanpoko euskal komunitatea indartzen laguntzea Euskal Etxeen sarearen bidez. 4.3.El-REN ARDURADUNA: Kanpoko Euskal Komunitatearen Zuzendaritza Jarduketa: 4.3.4.J. Euskal Etxeak informazioaren eta komunikazioaren teknologietan txertatzea sustatzea PLAN adierazlea: 4.3.4.J. Euskal Etxeak informazioaren eta komunikazioaren teknologietan txertatzea sustatzea: - Erabilitako komunikazio-bideen kopurua: 200 bide 2016 arte (2014-2016 ALDI PLANIFIKATUA) 4.3.1.J. Euskal Etxeen rola indartzea euskal errealitatea zabaltzeko mekanismo gisa: - Euskal Etxeek antolatutako jarduera kopurua: 6.000 bide 2016 arte (2014-2016 ALDI PLANIFIKATUA)

BAKEGINTZA ETA BIZIKIDETZARAKO IDAZKARITZA NAGUSIA

3.- BAKEGINTZA ETA BIZIKIDETZARAKO IDAZKARITZA NAGUSIARI DAGOZKION DIRU-LAGUNTZA NEURRIAK (2013-2016ko Bake eta Bizikidetza Planari lotuta)

PLAN BAKOITZARI LOTUTA IDENTIFIKATUTAKO DEIALDI BIDEZKO DIRU-LAGUNTZA ILDOAK: 2016

1.- 2016-KO AURREK. PROIEKTUA:

BAKEARI, BIZIKIDETZARI ETA GIZA ESKUBIDEEI BURUZKO PROIEKTUAK (UDALEI ETA TOKIKO ERAKUNDEEI zuzendutako diru-laguntzak).

AURREK. PROIEKTUA: 01 4621 31 42201 001; **2016: 150.000, Konpromiso-kreditua: 2017: 150.000.**

ETORKIZUNA: Gizarte-hezkuntzazko adiskidetzea eta konpromisoa

Helburua: 3. Lankidetza Udalekin eta Aldundiekin

Ekintza: Udalentzako diru-laguntza programa.

Adierazleak:

- Espediente kopurua. 55
- Parte hartzen duten erakundeen kopurua. 35

BAKE ETA BIZIKIDETZA PLANA 2013-2016

EKIMENA	EMAITZAREN ADIERAZLEAK	ERAGIN-ADIERAZLEAK
15. ekimena. Adostasuna bizikidetzaren alde foru-aldundiekin eta udalekin	Lurraldeka: -Inbertitutako aurrekontua. -Garatutako ekintzen kopurua. -Parte-hartzaileen kopurua.	·Kalitatea ·Gogobetetasuna ·Egokitasuna ·Beharrak · Eragina

2.- 2016-KO AURREK. PROIEKTUA:		
GIZA ESKUBIDEEN URRATZEEN BIKTIMEI ORDAINAK EMATEKO ARAUEN KUDEAKETA		
AURREK. PROIEKTUA: 01 4621 31 45302 003; 2016: 1.200.000		
IRAGANA: BIKTIMEI BEGIRUNEA ETA ELKARTASUNA ERAKUSTEA Helburua: 3. GIZA ESKUBIDEEN BORTXAKETEN BIKTIMEI ELKARTASUNA, ARRETA ETA LAGUNTZA EMATEA, EGUNGO LEGEEK ESTALTZEN EZ BADITUZTE Ekintza: Aitorpena eta ordainak emateko programa. Adierazlea: Bideratutako espedienteen kopurua. 50		
BAKE ETA BIZIKIDETZA PLANA 2013-2016		
EKIMENA	EMAITZAREN ADIERAZLEAK	ERAGIN-ADIERAZLEAK
4. ekimena. Terrorismoaren biktimei laguntzea, eta aitorpena eta ordainak ematea	·Laguntza-ekintzak ·Errekonozimendu-ekitaldiak ·Gizarte-entitateekiko lankidetzak ·Ikerketak eta azterlanak	·Kalitatea ·Gogobetetasuna ·Egokitasuna ·Beharrak ·Eragina
5. ekimena. Egungo legedian babesik ez duten biktimei laguntzea eta aitorpena eta ordainak ematea.	·Aztertutako espedienteak ·Emandako kalte-ordainak	

3.- 2016-KO AURREK. PROIEKTUA:		
BAKEARI, BIZIKIDETZARI ETA GIZA ESKUBIDEEI BURUZKO PROIEKTUAK (ERAKUNDEEI ETA GIZARTE MUGIMENDUEI zuzendutako diru-laguntzak).		
AURREK. PROIEKTUA: 01 4621 31 45499 002; 2016 450.000. Konpromiso-kreditua: 2017: 150.000		
ETORKIZUNA: Gizarte-hezkuntzazko adiskidetzak eta konpromisoa Helburua: 1. LANKIDETZA ELKARTE-SAREAREKIN Ekintza: ELKARTEENTZAKO diru-laguntza programa Adierazleak: - Espediente kopurua. 140 - Parte hartzen duten erakundeen kopurua. 70		
BAKE ETA BIZIKIDETZA PLANA 2013-2016		
EKIMENA	EMAITZAREN ADIERAZLEAK	ERAGIN-ADIERAZLEAK
13. ekimena. Lankidetzak publiko-soziala euskal elkartearen sarearekin	·Elkarte parte-hartzaileen kopurua.	·Kalitatea

	·Erakunde parte-hartzaileen kopurua.	·Gogobetetasuna ·Egokitasuna ·Beharrak . Eragina
--	--------------------------------------	---

4.- 2016-KO AURREK. PROIEKTUA:		
MEMORIA HISTORIKOA BERRESKURATZEKO JARDUERAK EGITEKO DIRU-LAGUNTZAK (Memoria Historikoaren Lehenetsaren Oinarrizko Programa. 1. EKIMEN-PLANA)		
AURREK. PROIEKTUA: 01 4621 31 45499 006; 2016 78.750. 2017ko konpromiso-kreditua: 30.000		
IRAGANA: Biktimei zuzendutako azalpena eta elkartasuna Helburua: 4. MEMORIA HISTORIKOA BERRESKURATZEN LAGUNTZEA Ekintza: Memoria Historikoaren arloko 2015-2016 Lehenetsaren Oinarrizko Programan zehaztutako proiektu estrategikoak garatzea, Biktimen politika publikoen lehenetsaren ingurukoak. Adierazlea: Memoria historikoa berreskuratzeko jarduerak egiten dituzten erakundeei zuzendutako diru-laguntzen deialdi publikoa. Espediente kopurua. 40		
BAKE ETA BIZIKIDETZA PLANA 2013-2016		
EKIMENA	EMAITZAREN ADIERAZLEAK	ERAGIN-ADIERAZLEAK
1. ekimena. Giza Eskubideen urraketei buruzko txostenak egitea eta eratoritzen diren ekintzak	·Txostenen kopurua. ·Gomendatutako jarduketa berrien kopurua.	·Kalitatea ·Gogobetetasuna ·Egokitasuna ·Beharrak . Eragina

5.- 2016-KO AURREK. PROIEKTUA:		
GIZA ESKUBIDEEI BURUZKO «Rene Cassin» SARIA.		
AURREK. PROIEKTUA: 01 4621 31 45499 010; 2016: 12.000		
ETORKIZUNA: GIZARTE-HEZKUNTZAZKO ADISKIDETZEA ETA KONPROMISOA Helburua: 5. GIZARTE SENTSIBILIZAZIOA Ekintza: Gizartea bakeari, giza eskubideei eta bizikidetzari buruz sentsibilizatzeko kanpainak edo ekintzak diseinatzea eta gauzatzea. Adierazlea: René Cassin saria. 1		
BAKE ETA BIZIKIDETZA PLANA 2013-2016		
EKIMENA	EMAITZAREN ADIERAZLEAK	ERAGIN-ADIERAZLEAK
17. ekimena. Ekintza-ildo bereziak sustatzea gazteriaren, kulturaren eta hezkuntza ez formalaren arloetan	·Inbertitutako aurrekontua. ·Garatutako ekintzen kopurua. ·Parte-hartzaileen kopurua.	·Kalitatea ·Gogobetetasuna ·Egokitasuna
18. ekimena. Gizartea sentiberatzea eta komunikabide publikoen konpromisoa lortzea	·EiTBrekin hitzartutako jarduketaren kopurua ·Garatutako komunikazio-ekimenen kopurua	·Beharrak . Eragina

6.- 2016-KO AURREK. PROIEKTUA:		
ITZULI BEHARRIK GABEKO DIRU-LAGUNTZAK TERRORISMOAREN BIKTIMENTZAT		
AURREK. PROIEKTUA: 01 4621 31 45302 001; 2016: 330.000 (4. EKIMEN-PLANA).		
IRAGANA: Biktimei zuzendutako azalpena eta elkartasuna Helburua: 2. TERRORISMOAREN BIKTIMEI ELKARTASUNA, ARRETA ETA LAGUNTZA EMATEA. Ekintza: Indarrean den araudian (4/2008 Legea eta azaroaren 9ko 290/2010 Dekretuko garapen-erregelamendua) adierazitako edozer diru-laguntza motarako espedienteen izapideak egitea. Adierazlea: Espediente kopurua 50		
BAKE ETA BIZIKIDETZA PLANA 2013-2016		
EKIMENA	EMAITZAREN ADIERAZLEAK	ERAGIN-ADIERAZLEAK
4. ekimena. Terrorismoaren biktimei laguntzea, eta aitorpena eta ordainak ematea	·Laguntza-ekintzak ·Errekonozimendu-ekitaldiak ·Gizarte-entitateekiko lankidetzak ·Ikerketak eta azterlanak	·Kalitatea ·Gogobetetasuna ·Egokitasuna ·Beharrak . Eragina

7.- 2016-KO AURREK. PROIEKTUA:		
TERRORISMOAREN BIKTIMEI LAGUNTZEKO ELKARTEENTZAKO DIRU LAGUNTZAK		
AURREK. PROIEKTUA: 01 4621 31 45499 012; 2016: 260.000 (4.2. EKIMEN-PLANA).		
IRAGANA: Biktimei zuzendutako azalpena eta elkartasuna Helburua: 2. TERRORISMOAREN BIKTIMEI ELKARTASUNA, ARRETA ETA LAGUNTZA EMATEA. Ekintza: Elkarateentzako diru-laguntza programa. Adierazlea: Espediente kopurua. 50		
BAKE ETA BIZIKIDETZA PLANA 2013-2016		
EKIMENA	EMAITZAREN ADIERAZLEAK	ERAGIN-ADIERAZLEAK
4. ekimena. Terrorismoaren biktimei laguntzea, eta aitorpena eta ordainak ematea.	·Laguntza-ekintzak ·Errekonozimendu-ekitaldiak ·Gizarte-entitateekiko lankidetzak ·lkerketak eta azterlanak	·Kalitatea ·Gogobetetasuna ·Egokitasuna ·Beharrak . Eragina

8.- 2016-KO AURREK. PROIEKTUA:		
ELKARREKIN BONUEN PROGRAMA		
HERRITARREN PARTAIDETZA alorra (13. EKIMEN-PLANA) UDAL alorra (15. EKIMEN-PLANA) HZKUNTZA alorra (16. EKIMEN-PLANA)		
AURREK. PROIEKTUA: 01 4621 31 45499 015; 2016: 500.000		
BAKE ETA BIZIKIDETZA PLANA 2013-2016		
EKIMENA	EMAITZAREN ADIERAZLEAK	ERAGIN-ADIERAZLEAK
HERRITARREN PARTAIDETZA	·Erakunde parte-hartzaileen kopurua.	·Kalitatea ·Gogobetetasuna ·Egokitasuna ·Beharrak . Eragina
13. ekimena. Lankidetzak publiko-soziala euskal elkarten sarearekin	·Elkarte parte-hartzaileen kopurua.	
2016-KO AURREKONTUEN LEGE PROIEKTUA		
ETORKIZUNA: GIZARTE-HEZKUNTZAZKO ADISKIDETZEA ETA KONPROMISOA		
Helburua: 2. HERRITARREN PARTAIDETZA		
Ekintza: Herritarrek parte hartzeko ekimenak definitzea eta bultzatzea Elkarrekin bonu-programaren bidez.		
Adierazleak:		
Diruz lagundu diren ekimenen kopurua. 25 Zenbat gizarte-erakundek parte hartzen duten. 8		
EKIMENA	EMAITZAREN ADIERAZLEAK	
UDALEKOA	·Lurraldeka:	
15. ekimena. Adostasuna bizikidetzaren alde foru-aldundiekin eta udalekin	Inbertitutako aurrekontua. Garatutako ekintzen kopurua. Parte-hartzaileen kopurua.	
2016-KO AURREKONTUEN LEGE PROIEKTUA		
ETORKIZUNA: GIZARTE-HEZKUNTZAZKO ADISKIDETZEA ETA KONPROMISOA		
Helburua: 3. LANKIDETZA UDALEKIN ETA ALDUNDIEKIN		
Ekintza: Elkarrekin bonu-programaren garapena udalekin eta aldundiekin.		
Adierazleak:		
Diruz lagundu diren ekimenen kopurua. 25 Zenbat gizarte-erakundek parte hartzen duten. 8		
EKIMENA	EMAITZAREN ADIERAZLEAK	
16. ekimena. Ekintza-ildo osagarriak bultzatzea hezkuntza formalararen	·Inbertitutako aurrekontua.	

arloan	·Ikastetxeen eta garatutako ekintzen kopurua. ·Parte-hartzaileen kopurua.	
2016-KO AURREKONTUEN LEGE PROIEKTUA		
ETORKIZUNA: GIZARTE-HEZKUNTZAZKO ADISKIDETZEA ETA KONPROMISOA Helburua: 4. HEZKUNTZA INDARTZEKO PROGRAMAK Ekintza: Elkarrekin bonu-programaren garapena hezkuntza formalean. Adierazleak: - Diruz lagundu diren ekimenen kopurua. 150 - Parte hartzen duten erakundeen kopurua. 18		